# Gaurkoan

Paulo Agirrebaltzategi (*)

# «Arturo Campión»en Aberri-Eguna

Orain dela 130 urte jaio zen Arturo Campión, Iruñean; orain dela 47 urte hil zen Donostian. 1884ean (orain dela 100 urte) argitaratu zuen bere *"Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara"*. Hori dela eta, Euskaltzaindiak Kongresu berezi bat egingo du aurtengo udazkenean, euskal gramatikari buruzkoa. Aurtengo Aberri Eguna dela eta, gogoratzeko dugu Arturo Campión; ezin, ordea, haren obra handia eta pentsaera osoa agertu.

**Arturo Campión-en Aberria**

1877an sortu zen Asociación Euskara Nafarroan. Campion-en eraginez eta euskal berbizkundeko lagun ospetsuak izan ziren Iturralde, Aranzadi, Irazoqui, Lagarde, Gaztelu eta beste zenbaiten eskuetatik. Campión-ek berak dioenez, bazkune huraxe "modernamente fue la primera que proclamó el dogma de la fraternidad euskariana". *Zazpiak bat* goiburuaren pean sortu zen. Berehala hasi zen *"Revista euskara"* argiratzen ere, bazkunearen boletin eta zabalkunderako organo gisa. Sei urte besterik ez zuen iraun, ze 1883an Madrilgo agintarian erasopean itxi egin behar izan zuten aldizkaria. Bazkunearen orduko zuendari zen Felipe Gazteluk, oihu batekin bukatu zuen gertakari hori zela eta, eman zuen hitzaldia: "Viva la patria euskara!": "Eran a modo de los actuales nacionalistas" (Campión).

Manuel de Irujok Campión-en *"Nabarra en su vida histórica"*, liburuaren sarreran dioenez, "de no haber tropezado con obstáculos insuperables derivados de la situación política del país, aquella asociación pudo hacer avanzar medio siglo a nuestra patria en el camino de su renacimiento".

Egun hauetan ikusi ditut hormetako kartelak eta egunkarietako deiak, *Aberri-Eguna* aldarrikatzen dutenak. Iruñera deitzen dute Herri Batasunak, Auzolanek, EMKk, Aizanek, Amnistiaren aldekoek; Gernikara deitzen du Euskadiko Ezkerrak; leku ezberdinetara EAJk. Eta... EPKk, PSOE-PSEk, APk, etab. ez dute inora deitzen. Zein aberri mota da gero hau, batzuk errebindikatu beharra ikusten dutena, beste batzu "eraiki" egin behar dela diotena, beste batzu "ospatu" nahi dutena, eta beste askok ukatu egiten dutena? Ez dago zalantzarik, egiteko aberria dugula: projektu bat. Edo, bestela, oroipen bat: Arbasoen herria!

Aberririk gabeko Aberri-Eguna da gurea. Ospatu, berriz, eduki daukazun zerbait ospatzen duzu. "Abertzaleona" bakarrik izango den bitartean, ez dugu Aberriaren jaia ospatzerik izango. Beldur naiz ez ote dugun batzutan abertzaleon jai partikulartzat hartzen Aberri Eguna. Nahi duguna, berriz, zera da: Euskal Aberriaren Eguna, euskaldun guztiona. Zoritxarrez, Euskal Herriko erakunde ofizial zaharrek eta berriek *euskal aberria ukatu egiten dute funtsean*, Herria bera zatikaturik uzten dutenean eta horren burujabetasuna salduta.

Seguruenik ez dabiltz oker "Herririk gabeko Aberriaren" eguna *ospatu* nahi ez duten horiek. Jakina! Ez dute hori *errebindikatzerik* ere, hori ukatzen duten erakundeak onartu eta ezarri dituztenetik. Beraientzat ez dago euskal Aberririk: ez ospatzeko, ez eraikitzeko eta ez errebindikatzekorik. Bitartean "abertzaleok" geure ospakizun partikularrak eginez jarraituko dugu Aberriaren izenean!

**Euskararen eguna?**

Gogoan dut orain dela hiru urteko Aberri-egunean, honelako tituluaz idatzi zuela Zenarruza zelakoak artikulu bat: "Aberriaren eguna, Euskararen eguna".

Seguru asko Aberriaren egunak ba ditu bestelako zioak eta gaiak, euskara ezezik: baina euskara ezean, bat ere ez. Berriro Arturo Campión-i helduko diogu, bere *"Gramática"*-ren sarrerako pasarte batzu gogoratuz.

"Entonces me avergoncé de llevar sangre euskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los euskaros"... Euskalduntzat aitortu norberaren burua, eta euskara baztertu: lotsagarria! Abertzaletzat aitortu norberaren bura, eta euskara ez landu: lotsagabekeria!

Irujok iruzkintzen ditu Campión-en hitzak: "Campión unía en su mente la subsistencia del pueblo vasco a la del euskara. Intensamente preocupado, desde muy joven, por el porvenir político de su pueblo, dedicóse con afán al estudio de sus valores nacionales, comenzando por aprender su idioma". Entzumena duenak, entzun beza!

Ezagunak dira Campión-en beste hitzok ere: "Aunque el euskara fuese un lenguaje desabrido y torpe le amara yo como a las niñas de mis ojos"... Baina berak euskara lantzeari ekin zion, eta hitz horien ondoren *"Gramática"* mardula eskaini zigun. Aberriak lanari ekitea eskatzen du: Euskara modernotzeko gaurko kulturan, eta nork bere burua modernotzeko euskaran.

Eta hona azkena: "El euskara (...) es un testimonio vivo y fehaciente de nuestra jamás domada independencia nacional". Aurtengo Aberri-Egunerako oihu ederra! Iazko Aberri-Egunerako idatzi nuen honelako artikulu bat: *"Independentziaren sua: Euskara eta Kultura"*. Horretan irauten dut; horretan al gara? "Euskadik ez du etsiko – Euskadi no se rinde"... Benetan? Euskararik gabe etsi dugu. Gureak egin du!

**Jarkierarako deia**

Orain dela laurogeitamar urte pasatxo jaulki zituen (1893ko uztailaren 22an) Campión-ek hitz hauek Espainiako Parlamentuan: "Aquí estamos los diputados navarros cumpliendo la misión tradicional de nuestra raza, que tanto en la historia antigua como en la moderna, y aun en la contemporánea, se expresa con el vocablo *resistir* (...) La historia de ayer es la historia de hoy; y de igual suerte que nuestros progenitores defendieron el suelo patrio contra los ataques del extranjero a quien no provocaban, estamos ahora defendiendo nosotros nuestro derecho...".

Uste dudanez, jarkierarako eta defentsarako oihua eta irrintzia da Aberriaren Eguna, beste ezer baino gehiago, gaur ere. Baina nola defendi daiteke Herririk gabeko Aberria?

Nekez eratu daiteke gazteluaren defentsa, gaztelurik ez badago. Horregatik, gaurko abertzaleen erresistentziak ez du izan behar geure irudimenezko gaztelu abertzalean sartu eta hortxe, itxian, horren defentsa eratzeko. Aurrera egiteko ez den jarkierazko taktika etsitzen ari da. Irekia izan behar du gaurko abertzaleon erresistentziak, horren arrisku eta guzti.

Erresistentziarik onena ez da gure eta etsaiaren artean *lurra ebakiz* (trintxerak ipiniz) egiten funtsean, eta bai etsaiarenganako *bide berriak ebakiz*, jarkieraren helmugak irabaziz joateko eta horretarako lur berriak eta jende berria geureganatzeko.

Herria egin behar da Aberria berreskuratuko bada.

(*) **Euskal idazlea**

# Puntaren Puntan

## micifuz y zapiron

Es triste, demasiado triste observar cómo incluso con el pretexto del 1° de Mayo, esos dos impúdicos hermanos siameses que son Nicolás Redondo y Marcelino Camacho, se azuzan y provocan intensificando las andanadas mutuas y los raquetazos que hasta serían divertidos si no fuera por los miles y miles de trabajadores que la pagan detrás: Micifuz y Zapiron se comieron el ratón y Marcelino y Nicolás se están comiendo la dignidad y el prestigio de la lucha de la clase trabajadora.

Los dos líderes sindicales tuvieron también sus días claros y valientes, la cárcel y la clandestinidad. Pero cada día quedan más lejos. Ahora se han convertido en dos patéticos carrozas que se tiran los trastos y que montan vergonzosos números de patio de vecindad.

Se reparten los papeles: uno hace de feo y otro de guapo, uno de malo y otro de bueno. Al final viene a ser lo mismo. Micifuz y Zapirón son dos gatos asustados y maulladores; uno que se arrima al sol que más calienta y *otro que pregona sus frustraciones y* sus celos.

Los trabajadores que se encuadran en las filas de la UGT y de CCOO no se merecían tales dirigentes, pero lo cierto es que son ellos, los Micifuces y los Zapirones, los que se llevan el gato al agua. Ellos los que han convertido el Uno de Mayo en una fiesta para Tip y Coll, o para desfilar con rosas o banderas rojas "reivindicativamente". Mientras tanto se cierran las fábricas y se ciegan los puestos de trabajo. Felipe González se sienta con la patronal para ofrecer seguridades y el Partido Comunista sigue denunciando a los terroristas norteños y a los piquetes desestabilizadores. Micifuz Redondo *anuncia con maullidos temblorosos*: "Este 1° de Mayo debe llevar el compromiso de erradicar el terrorismo, que constituye la única sombra que amenaza nuestra libertad". En el otro rincón y por una vez –sin que sirva de precedente–, asiente complacido Zapirón Camacho. La comedia continúa.

J. ABIRANETA

# Hemeroteca

## cautivo y desarmado

*(Pedro Rodriguez, en "El Diario Vasco", 27-4-84)*

A Sotillos casi se le va la voz en el comunicado oficial: "Cautivo y desarmado en el día de hoy", etcétera. Pero el puzzle no encaja: Ruiz Mateos que jamás quiso usar armas, se presenta con un pistolón y documentación falsa a pasar aduana en un país que tiene convenio de extradición con España. No cuela demasiado. Estas cosas se sabrán dentro de 75 años, o cuando Julio Feo escriba sus memorias. Rumasa sigue siendo el iceberg con tres cuartas partes sumergidas, el cristal esmerilado a través del cual sólo se ven informes sombras, agitándose. Claro, a los políticos se les dispara la imaginación: "Jugada-de-Guerra-para-cargarse-a-Boyer", ho, la, la, la. Ruiz Mateos en la sexta galería de Carabanchel, bien explotado por la derecha, puede ser mortal para cualquier Gobierno. Pero también hacer unas elecciones con Ruiz Mateos indultado y en su chalet, significaría para el PSOE cerrar la tienda. Qué hacer con el dichoso señor debería ser la pregunta del referéndum, aprovechando el de la OTAN.

## fin de la violencia

*(Declaraciones de Mario Onaindia a "El Correo Español", 27-4-84)*

–Mario Onaindía ha pasado en poco más de siete años de ser un miembro de ETA con una condena a muerte indultada a dirigir un partido que defiende el Estatuto y las instituciones autonómicas. ¿Cómo puede explicarse ese salto?

–Para mí lo más apasionante ha sido la gran experiencia acumulada, porque yo empecé en esto hace veinte años y el haber intentado teorizar diversas doctrinas, no siempre sin contradicciones. EE ha sido una especie de aventura intelectual, un vamos a ver lo que dan de sí las distintas ideas que hay en este país. En estos siete años EE ha ido superando diversos hitos ya ensayados por otras experiencias. Tengo que decir que las cosas que planteaba ETA en su momento me parecían bien, pero luego se resolvían mal. Nos propusimos entonces cómo hacer un partido que superase esas experiencias fracasadas. Era algo casi competitivo. Hoy creo que este proceso se ha acabado, que EE es un proyecto consolidado electoralmente, y que tenemos que pensar en otras cosas. Quiero darme un respiro para pensar en ellas. (...)

–Sin embargo, últimamente Mario Onaindía si que se ha mostrado confiado en que se resuelva a medio plazo el problema de la violencia.

–Yo creo que estamos en la recta final de la solución, que la sitúo para antes de 1988. Hace un año no veía tan clara la salida, pero ahora cada vez está más claro que el Estado ha aceptado la fórmula de la reinserción social para los que abandonen las armas, y que la sociedad vasca evoluciona hacia el pacifismo. Si el fenómeno de la violencia se enfrenta a un Gobierno inflexible, cerrado a la negociación, que reduce la resolución de este problema a los cauces policiales, tenemos ETA para cien años. Pero si se ve que hay flexibilidad, como se ha demostrado, y se ve que esas medidas cunden efecto, pienso que se alcanzará la meta. Debemos ser conscientes, no obstante, de que cada grupo va a tener una solución política distinta.

## el país vasco

*(Fernando Vizcaino Casas, en "El Alcazar", 26-4-84)*

En ocasión del Aberri-Eguna celebrado el domingo último, han repetido las sandeces de siempre los separatistas de HB, amablemente seguidos por los necios del PNV. Gurruchaga aseguró que Euzkadi constituye una nación con características propias; Olaberri tuvo el rostro de afirmar que nunca habían estado los abertzales en mejores circunstancias para crear una nación moderna... Bueno; por si alguno de estos insensatos llega a leerme, les reproduzco unas aleccionadoras frases dichas sobre ese mismo tema hace ya tiempo.

1. ¿Qué sería de las provincias vascongadas sin su formidable vinculación a la economía española, de la cual se nutren sus más potentes industrias? El separatismo sería suicidio por asfixia, y los pueblos no se suicidan. (21 septiembre 1932).

2. Se empezó aquí una campaña de odio, más que de odio, de menosprecio, hacia las gentes de otras tierras españolas que aquí venían a cultivar la riqueza de Vizcaya, a construir esa Vizcaya espléndida de hoy, que no es, ciertamente, ni mucho menos, obra exclusiva de los vizcainos de nacimiento, sino que es obra de cooperación de hombres de todas las tierras de España, y singularmente de Castilla (16 de noviembre 1933).

3. No creo que ningún vasco amante de su país quiera la libertad de éste, a costa de su ruina, porque cuando la ruina surge no hay libertad posible. Creada la industria guipuzcoana para el mercado interior, un desgajamiento separatista habría de reflejarse en la economía de este país de una manera desastrosa.../...volviendo la provincia a una economía rural que lanzaría al fondo mismo de una sima. (29 febrero 1936).

4. El imperialismo vasco, el nuevo mapa de Euzkadi...Al leer esto no sabe uno si reír o llorar, si blasfemar o entregarse al chiste. Es que uno se resiste al galope de los siglos hacia atrás.../ ...es que uno no quiere retroceder a la Edad Media y, sobre todo, es que le soliviana la ridícula y criminal pretensión de borrar el nombre de España. (20 julio 1943).

Los párrafos anteriores fueron dichos o escritos por don Indalecio Prieto y Tuero. Entérense los imbéciles que piensan que la sagrada unidad de España y la estupidez del separatismo regional sólo importan a quienes ellos consideran fachas o retrógrados. Importa, ¡y mucho!, a todos los españoles con un mínimo de dignidad.